



3. ANGELUAK

1 Sailkatu angelu hauek irekiduraren arabera:






2 Erreparatu irudiari eta erantzun:




- Zer motatakoa da $\hat{A}$ angelua irekiduraren arabera?
- Nolakoak dira elkarrekiko $\hat{A}$ eta $\hat{F}$ angeluak?
- Marraztu zure koadernoan bi angelu auzokide eta erpinez aurkakoak diren beste bi.

3 Sailkatu poligono hauen angeluak irekiduraren arabera:



ZUZENAK	ZORROTZAK	KAMUTSAK

4 Zer angelu mota ikusten dituzu objektu hauetan?



5 Sailkatu bloke geometriko bakoitzeko angeluak zabaleraren arabera.



6 Aztertu erlojuak, eta idatzi zer ordu dagokion kasu bakoitzari.





- a) Erlojuko orratzek angelu zuzena eratzen dutenean, Matematikako eskola hasten da.
- b) Ingeleseko irakaslea gelara sartzen denean, erlojuko orratzak angelu zorrotza eratzen ari dira.
- c) Musikako eskola amaitzen denean, erlojuko orratzak angelu osoa eratzen ari dira.
- d) Erlojuko orratzek angelu kamutsa eratzen dutenean, eguneko eskolak amaitzen dira.

- 1 Sailkatu pare bakoitzeko angeluak kokapenaren arabera. Esan zein diren auzokideak.

Ondoz ondokoak

Erpinez aurkakoak



- 2 Irakurri, eta aukeratu erantzun zuzena.

a) Bi angelu erpinez aurkakoak badira...

(A) ondoz ondokoak dira.

(B) neurri bera dute.

(C) ez dute neurri bera.

b) Bi angelu ondoz ondokoak badira...

(A) bata bestearen alboan daude beti.

(B) bereizita daude beti.

(C) batera 180° dira beti.

3



Pentsatu eta binaka
jarrita komentatu

Esan baieztapen hauek zuzenak (Z) edo okerrak (O) diren. Okerrik badago, idatzi zuzen.

a) Auzokideak diren angelu guztiak ondoz ondokoak dira.

b) Ondoz ondokoak diren angelu guztiak auzokideak dira.

c) Bi zuzen ebakitzailerik erpinez aurkako angelu pare bakarra eratzen dute.